

2. Errekadistak

Errekadista dezente egon da Oñatin XX. mendean zehar. Herrian ezin zena erosi hirietatik ekartzen zuten; hori zen euren lana. Gainera, Oñatiko produktuak ere eramaten zituzten hiri handietara. Adibidez, Araotzeko baba gorriak Donostiako jatetxeetara eramaten zituen Eugeni Sukia errekadistak. Lan hau emakumeek egiten zuten normalean, nahiz eta poli-ki-poliki, gero eta gizon gehiagok egin.

Oñatiarren enkarguak ere jasotzen zituzten eta adibidez, jendeak oinetakoak, poltsak, kapelak... eskatzen zizkieten. Eugenik, esaterako, otzara asko hartuta joaten zen trenez Brinkolatik Donostiara egunero.

